noaua



"ETOR ZAITEZ HEZUR LAPUR UXATZERA"

Urriaren 31n Gau Beltza ospatuko da eta antolaketa batzordeak dagoeneko prest du egitaraua / 07 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Dirulaguntza lerro berria, tokiko zerbitzuen erreleboa sustatzeko / 06



AMAIA ELIZAGOIEN

Amaia Elizagoien ipuin-kontalaria: "Ipuinek ez dute adinik" / 15



UDALA

Arrobitxuloko proiektua saritu dute Europako NEB sariketan / 18



ERRIGORA

Errigorako produktuak eskatzeko garaia iritsi da / 20



NOAOA BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 · info@noaoa.eus · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria

HANI MÓVILES

MUGIKORREN KONPONKETA

Zure mugikorra konpontzen dugu, zu zaintzen zaitugu.

663 268 434
843 679 098

Urbil merkataritza gunea

Pantaila aldatzea
Ura sartzea
Bateria aldatzea
Software arazoak

BERMEA
KONPONKETA AZKARRAK
KALITATEA
KONFIANTZAZKO ZERBITZUA

errigora

Auzolanean euskara

sustraitik espaziora

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 12

Eskatu zure saskia eta eman **%25 Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzari**



Saski beltza 60€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€

+ osagarria: **"euskararen haziak ereiten" egutegia** 10€



Ione Iruretagoiena, Donostiako moda jaialdian

Herrikide diseinatzaileak urriaren 24an, 13:00etan San Telmo Museoan ezkontzei lotutako desfilea eskainiko du, Donostiako moda jaialdi ezagunaren baitan.

"2027ko ezkontza bilduma berria aurkeztuko du, une paregabeak janzteko joskintza eta artisautza uztartzen dituen proposamena", antolatzaileen aditzera eman dutenez. Ez da lehen aldia bertan halako aurkezpen bat egiten duena, Balenciaga Museoan bezalaxe. Bartzelonan trebatu zen Moda Diseinuan. Usurbilen hainbat prestakuntza saio eskaini izan ditu. Larunbatean, Donostiako moda jaialdian parte hartuko du, beste hainbat diseinatzailearekin batera, 11:00etan hasi eta iluntzera arte luzatuko den erakustaldian.

Urriaren 19tik 24a egingo den jaialdiko zuzendaria usurbildar bat da, Laura Chamorro.



Ione Iruretagoienaren desfilea, Arrobitxulok ekainean antolaturiko II. Kultur Azokan.

Garbigune mugikorra, Txokoaldera

Aginagatik Txokoaldera lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra. Urriaren 22an egingo da aldaketa eta bertan izango dute urriaren 28ra arte.

Errefusaren hurrengo bilketa ordea, igande honetan izango da (urriak 25).

1955ean jaiotakoak Patrin batuko dira urriaren 24an

"Aurten ere, 1955. urtean jaioak larunbat honetan batuko dira Patri jatetxean. Izena ematea aurreko astean itxi zen. Dena den, hauek antolatzaileen kontaktuak:

- 675 00 64 45 Maribi
- 615 76 04 58 Patxi
- 1955usurbil@gmail.com

1969koak azaroaren 7an batuko dira Mahaspildegin

Mahaspildegin batuko dira, 12:00etan. Bazkaria ordea 14:30ean izango da, Artzabalen. 50 euroko ordainketa egin beharko da: ES32 3008 0259 1547 7191 6121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan, 69 eta izena idatzi. Izena emateko azken eguna, azaroaren 3a.

1966an jaiotakoen topaketa, urriaren 31n

Bazkaritarako bilduko dira Saizarren. Bazkalaurretik ordea, trikipoteoa iragarri dute. Izena emateko 66 euroko ordainketa egin behar zen, nork bere izen-abizenak adieraziz, urriaren 15a baino lehen, kontu honetan: ES54 2095 5069 0091 2749 4577 (Kutxabank).

noaua TOKIKOM

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Kudeatzailea: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea: Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea: Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Usurbilgo Udala

BIKAIN
EUSKARAREN KALITATE-ZIURTAGIRIA

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Bakearen Nobel saria 2026

Norvegiako Nobel Sariaren Batzordeak pasa den ostiral honetan, urriak 10, aurtengo Bakearen Nobel Saria Hegoafrikako Navi Pillay legelari ospetsuari eman diola iragarri zuen, bakea eta nazioarteko zuzenbidea sustatzeko ahalegin handiak egin dituelako. Nobel Batzordeko Presidenteak esan zuenez, sari hau ausardia eta guztizko zintzotasun morala agertu dituen pertsona bati eman zaio. Aldi berean, "munduko ordena juridiko zabalago eta inklusiboago bat eraiki du. Bere ibilbide profesional osoa, giza eskubideen alde hartu zuen konpromisoaren testigantza izan da". Bakearen Nobel Saria irabazten duen 21. emakumezkoa da.

Bere aiton-amonak indiarrak ziren eta Hegoafrikara etorriak azukre -kanabera sailetan lan egitera. Bere aitak autobusetako txofer lanak egin zituen. Garai hartan, Hegoafrikan "apartheid" sistema lotsagarriak agintzen zuen. 1967an bera izan zen lehen emakumezkoa Hegoafrikan abokatu bufete bat ireki zuena. Berehala hasi zen giza eskubideen defentsan eta batez ere, apartheid aginte modu nazkagarri horren aurka borrokatzen zuten aktibista ausarten alde, adibidez, Nelson Mandela eta bere lagunak. Pillayren aurretik Gandhik egin zuen antzeko esperientzia. Ingalaterran abokatu ikasketak amaitu ondoren, Hegoafrikara joan zen bere abokatu praktikak egitera eta bertan arrazakeriaren ondorio latzak jasan behar izan zituen.

Bere lanik sonatuenetakoa Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak bortxaketa eta sexu indarkeria gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioa izan zitezkeela ezartzea izan zen. Gogoratzen gara nola 1994an, hiru hilabetean, 800.000 mila pertsona hil zituzten modu basatian tutsien eta hutuen artean. Bere eragina faktore erabakigarria izan zen une hartan. Prozesu horretan bertan, akusatu batek genozidioa bultzatzeko karguei aurrera egin behar izan zien propaganda zabaltzeagatik soilik. Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegian, Pillay epaile nagusia izan zen. Geroago, 2019an, Nazioarteko Zigor Auzitegiko Magistratua izan zen eta NBEko giza eskubideen buruzagitza hartu zuen bere gain. NBEn izan zuen azken rol garrantzitsua: Lurralde Palestinar Okupatuei buruzko Nazioarteko Ikerketa Batzorde Independentearen lehendakaria izan zen 2021etik 2025era bitartean. Batzorde horrek ondorioztatu zuen iaz, Gazako zerrendan Israelek palestinarren aurkako genozidioa egin zuela.

Pentsatzekoa zen bezala, saria hau Pillayri emateak ez dio batere graziarik egin Donald Trump presidenteari. Oso deseroso eta haserre jarri du, izan ere, saria berari eta Benjamin Netanyahuri emango zitzaiela espero baitzuen bere amets paranoiko horietan. Nola izan daiteke, ordea, hain zoroa eta erridikulua? Munduko kriminal handienetakoa da Netanyahu eta Trump bere lagun mina. Itxaropen zoro horretan Netanyahu ez da atzera gelditu. Sariaren berri izan zuenean, "iparrorratz morala guztiz galdu du Pyllayk; saria fanatiko bati eman zaio" esan zuen, zeinek eta hirurogeita hamabost mila pertsona, gehienak zibilak eta haurrak hil dituen kriminal horrek.

Bakearen Nobel Saria oso garrantzitsua da ikusgarritasun globala eta legitimitatea sarituei (pertsonak edo erakundeak) emateko; bozgorailua eta babes politikoa eskaintzen zaie ere, kausa humanitarioak eta bake-negoziazioak bultzatzeko. Giza-eskubideen defentsa arloan demokraziaren aldeko borroka ikusarazteko balio du. Bakearen Nobel Sariaren banaketa polemikoa izan da historian behin baino gehiagotan: batzuetan espero zenari eman ez zaiolako, izendatua izan zenak bere saria jasotzeko aukerarik ez zuelako eta abar.

Norvegiako Nobel Sariaren Batzordeak esan duenak laburbiltzen du Navi Pillayk jaso duen sariaren zergatia eta zentzua: "Hegoafrikar aktibista hau indarkeriaren eta gatazken biktimentzat esperantza iturri izan da".

"PILLAY INDARKERIAREN ETA GATAZKEN BIKTIMENTZAT ESPERANTZA ITURRI IZAN DA"

1972. urtean jaiotakoen bazkaria, azaroaren 7an

Azaroaren 7an Zubietako Iruin sagardotegian batuko dira, 14:30ean. Otordurako izena urriaren 31 baino lehen eman beharko da. 50 euroko ordainketa egin beharko da: ES41 2095 5048 1091 2804 0123 (Kutxabank). Ordainketa egiterakoan, nork bere izen-abizenak adierazi beharko ditu.

1959an jaiotakoen topaketa, urriaren 31n

Urriaren 31rako antolatu dute bazkaria Artzabalen. 13:00ean geratu dira bazkalaurreko poteorako. Otordurako izena telefono zenbaki honetara deituta eman daiteke: 659 13 90 73.

1957an jaiotakoen topaketa

Azaroaren 21ean bilduko dira bazkaritarako Patri jatetxean. "Oraindik animatu ez denik bada" izena emateko gonbita egin dute. Izena azaroaren 14ra arte eman ahalko da, telefono zenbakiotako batera deituta: 620 231 299 (Juantxo) edo 617 392 767 (Iñaki).

Zineforuma Txirikordan

Urriaren 29an izango da, 16:30ean, eraikineko sotoan. Egunean bertan zehaztuko da proiektatuko den filma. Sarrera doakoa izango da.

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

TXAPELDUN
ARDANGELA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurra 2, 943 49 88 83



Bizipoza eta beste hainbat elkartek antolatu dute 'Gehiago Gara' ekimena.

Zaintza aringarri pediatrikoak errealitatera ekartzeko ekitaldia

Gehiago Gara izeneko ekimena larunbat honetan izango da, goizeko 11:00etatik aurrera Sutegin.

Gehiago Gara izeneko ekimenak antolatu du urriaren 24an, goizeko 11:00etan Sutegiko auditorioan. Ekimen horren parte dira Hil Argi Elkartea, Bizipoza Elkartea, Bidegin Elkartea, Goizargi Elkartea, Esku Hutsik Elkartea, Heriotza Haurrekin. "Zaintza aringarri pediatrikoak 24/7 zerbitzu bidez errealitate izan dadin" galdegingo dute hitzordu horren bidez. Ekitaldian izango dira "Porrotx eta Marimotots, Goazen! taldea, eta baita Ane Labaka, Maddi Ane Txoperena eta Yolanda Arrieta ere".

Gonbidapenak eskuragarri

Antolatzaileek iragarri dutenez, "ekitaldi laburra eta goxoa izango da eta Sutegi aretoa haur eta helduekin bete nahi dugu. Zatoz gurekin!" egin dute deia. Auditorioko ekitaldiaren ostean, "argazkia, esku-soka eta hamaiketakoa" iragarri dituzte. Gonbidapenak labur.eus/gorde helbidean eskuratu ahalko dituzue aldez aurretik. Bide batez, gogoan izan, antolatzaileen artean badela eragilerik udaberriaz geroztik abian den "Komunitatetik heriotzaz" zikloa sustatzen ari denik ere. Ziklo hau azken txanpan da.

"Heriotza eta kulturartekotasuna" hizpide, azaroaren 5eko saioan

Iragan igandean, "Aitatxo" dokumentala proiektatu ostean, azaroaren 5ean, 18:00etan Sutegin, "heriotza eta kulturartekotasuna" izango dute hizpide, hainbat sorterrietako herrikideekin. Nork bere jaioterrian heriotza bizitzeko duten moduez mintzatuko dira. Ekitaldirako gonbidapenak aurrez eskuratu daitezke usurbilkultura.eus plataforman.

EKITALDIAN PORROTXEK ETA MARIMOTOTSEK HARTUKO DUTE PARTE

15 urtera artekoek MUGI txartela baliozta dezakete autobusetan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak jakinarazitakoaren arabera, aste hasieraz geroztik, 15 urtera artekoek Lurraldebuseko autobusetan bertan balioztatu ahalko dute MUGI txartela. Orain arte, "MUGI txartela balioztatzen den zerbitzuetan, nahikoa zen adingabeek Lurraldebuseko gidariei zero euroko txartela eskatzea". Aurrerantzean, 6 eta 15 urte artekoek "beren txartelak balioztatu ahal izango dituzte, inolako kosturik gabe. Gogoratu behar da 0 eta 6 urte bitarteko adingabeek ez dutela MUGI txartelik". Aldaketa horrekin, jarduteko modua, besteak beste, Euskotrenen parekoa izango da. Urte amaierara arte trantsizio tarte modukoa planteatu du Aldundiak. "MUGI txartela aurkezten ez duten adingabeek zero euroko txartelarekin bidaiatzen jarraitu ahal izango dute". Orain arte bezala, doan bidaiatzen jarraitu ahalko dute adin tarte horretakoek.

Departamendu berak jakinarazi duenez, bestalde, 2025ean baino %6,18 bidaiari izan ditu Lurraldebusek aurtengo lehen seihilekoan; guztira, ia hamasei milioi bidaia erregistratu dira Gipuzkoako zerbitzuetan. Horien artean, udalerri hau zeharkatzen duen Zumaia eta Donostia arteko UK09 linearen baitan, 306.116 bidaia egin dira.

LAB-en Etxebizitza Asanblada

Denontzako etxebizitza eta soldata duinen aldeko azaroaren 11ko greba orokorrera begirako hitzordua antolatu du LAB sindikatuak. Eskualde mailako Etxebizitza Asanblada deitu du urriaren 22an, 18:30etan Hernaniko Biteri Kultur Etxean. Bertara joateko deia egin dute.

Deialdia erregistratua

"Euskal Herritik Euskal Herrirako deialdia izan behar duela sinetsita", LAB, ELA, ESK, STEILAS ETXALDE, HIRU sindikatuek Etxebizitza Sindikatuen Sarearekin eta Etxebizitzaren Sindikatu Sozialistarekin batera, azaroaren 11rako etxebizitza eskubide duinaren aldeko greba orokorrerako deialdia erregistratu zuten iragan astean. Sindikatuon esanetan, "azaroaren 11n, etxebizitza eskubidea bermatu dadin eta espekulazioari ezetz esateko eguna izan dadin deia egin dugu".

HAPO-a, behin betiko onetsia

Azken hamabi urteotako lanketari azken onespena falta zitzaion behin betiko onartutzat jotzeko eta heldu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu duela jakinarazi zuen urriaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez.

Erraustegia bisitatzeko eskaera

Ez da lehen aldia, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eragile politikoren batek Zubietako erraustegia bisitatzea galdegin duena. Oraingo honetan, PP izan da aipatu eskaera egindakoa. Instalakuntzara joateko hitzordua antolatzea proposatu dute, "lehen eskutik ezagutzeko instalakuntzak, funtzionamendua eta jarduera". Gaia aztertzekoak ziren Jasangarritasun Batzordean, urriaren 21ean.



"Pello arrandegiak badu ondorengoa eta dirulaguntza hau eskatzeko tramiteak egiten hasia da".

"Gaur pozik esan dezakegu, bidea zabaltzen ari garela"

Usurbilgo tokiko zerbitzu txikien belaunaldi erreleboa sustatzeko dirulaguntza deialdi berria abiarazi du Usurbilgo Udalak, Siadeco Ikerketa Elkartearekin eta Beterri Buruntza Mankomunitatearekin lankidetzan. Udal laguntza lerro berria aurkeztu dute egunotan.

ARITZ LASARTE

"Udal dirulaguntza politikari lotutako pauso berri" gisa definitu zuten dirulaguntza lerroa. Azken urteotan hainbat saltoki itxi dira, erreleboa hartzeko inor izan gabe. Ondorioz, "zenbait gremio gure herritik desagertzea eragin du" egoera horrek, Iratxe Begiristain udal zinegotziaren esanetan eta hori da hain zuzen, eragotzi nahi dutena. Izan ere, "herri bati bizitza ematen dioten" elementu gakoen artean dira bere esanetan, herriko zerbitzuak eta zerbitzuok eragindako onurak. Izan ere, herrian bertan erosteko aukera eskaintzeaz gain, "elkar zaintzeko eta harremanak sendotzeko bidea ere ematen dute, komunitatea trinkotzekoa". Zerbitzuok Udalarekin herri zaintzaileagoa izateko lanketan ari dira urteotan.

"Borroka egin beharko dugu"

Gaiak eragindako kezka tarteko, errealitate hau aztertzea erabaki zuen Udalak. Siadeco Ikerketa Elkarteak egin du azterlana. Horren emaitzetan oinarrituta abiarazi dute Usurbilgo tokiko zerbitzu txikien belaunaldi erreleboa sustatzeko udal dirulaguntza deialdi berria. "Kezka batekin abiatu genuen azterketa eta azterketak kezka hori benetakoa zela erakutsi zigun. Egoera, espero genuena baino kezkagarriagoa dela ikusi genuen diagnosi horrekin".

"ELKAR ZAINTZEKO ETA HARREMANAK SENDOTZEKO BIDEA ERE EMATEN DUTE, KOMUNITATEA TRINKOTZEKOA"

"NEGOZIOETAKO ARDURADUNEK NAHI DUTE HAIEN JARDUERAK JARRAIPENA IZATEA"

Sektorearen etorkizuneko aurreikuspena egin eta bertan lanean dihardutenen nahiak eta espektatibak bildu zituen Siadecoren ikerlanak. Iaz aurkeztu zizkioten emaitzak Udalari. Herriko 54 establezimenduetatik 48rekin jarri ziren hartuemanetan. Guneok hiru azpisektoreetan multzokatu eta banan-bana aztertu zituzten. Merkataritzarena da, antzinatasun handienekoa, 40 urtetik gorako ibilbidea duena. 11 saltokitik zortzi dira multzo horretakoak baina bertan daude erretiroa hartzetik hurbilen dauden langile gehienak ere, Siadecoko ordezkari Juanjo Allurrek azaldu zuenez. Zerbitzuetako jarduerak, aldiz, berriagoak dira eta gazteagoak dabiltza beharrean. Azkenaldian irekitako gehienak multzo horretakoak dira. Azkenik, bi azpisektore horien "erdibidean" legoke ostalaritza, Allurren esanetan, "bai adinez eta antzinatasunari dagokionean. Bi berezitasun ditu ostalaritzak: arduradunen aldaketa gehiago dago eta bestalde, lokalak alokairuan daudenen kasuan ostalaritzan gehiago dira, ia erdia edo". Aldiz, "merkatari gehienek haien negozioa aurrera eramateko lokala jabetzan dute".

Langileen espektatibei dagokienean, "negozioetako arduradunek nahi dute haien jarduerak jarraipena izatea dudarik gabe, hirutik bik". Aldiz, "hirutik batera murrizten da, benetan haien negozioak jarraitzeko aukera ikusten diola erantzun dutenak". Jarraipena bermatzeko hiru zailtasun nabarmendu zituzten; lanbide lotua izatea, jarduerok abiarazteko egin beharreko inbertsioa eta horien errentagarritasun txikia. Horrekin batera, 2029ra begirako aurreikuspena landu du Siadecok. "Hamaika establezimenduetako arduradunek erretiroa" hartzeko adina izango dute hiru urte barru; bostetik batek alegia", bereziki, azken urteotako itxieren



Aurrez eginiko ikerlanaz azalpenak eman zituen Siadeco Ikerketa Elkarteko ordezkari Juanjo Allurrek.

⟶ ondotik erreleboa hartzeko zailtasun gehien dagoen merkataritzan".

Datuak eskuartean Allurrek argi zioen; "dudarik ez da, borroka egin beharko dugu jarraipena izateko". Horretarako lau eskuhartze proposatu zizkion Siadecok Udalari: balizko itxierei aurre hartzea, ondorengotza errazteko Beterri Buruntza Mankomunitateak laguntza teknikoa eskaintzea, erreleboa sustatzeko dirulaguntza lerro berria abiaraztea eta ondorengotza esperientziak gizarteratzea. Erronka argia du herri honek Siadecoko ordezkariaren esanetan; "merkataritzako establezimendu bakar bat ere itxi ez eta hari jarraipena ematea. Horretarako, herritarrek herriko dendetan eta komertzioetan erosteak beti eta orain, berebiziko garrantzia du".

"Transmisio baldintzen egokitasuna"

Eskuhartze proposamen horiek abian jarriak ditu Udalak. Batetik, dirulaguntza lerro berri bat abiarazi du. Aurrez bazuen Udalak itxitako lokal komertzialetan jarduera berriak abiarazteko Usurbil Zabalik dirulaguntza deialdia. Ondorengotza sustatzeko lerro berri honen lanketa, "negozioa uzten duenarekin eta hartzen duenarekin uztartu beharreko tutorizazio prozesu" gisa definitu zuen udaleko enplegu sustapen eta garapen ekonomiko alorreko teknikari Josune Mugikak. Prozesu horretan zehar, "negozioaren bideragarritasuna aztertu behar da eta baita ere, transmisio baldintzen egokitasuna". Eskualdatzea lanean ari denaren erretiroak eragin beharko du. Ixtear den negozio bati segida eman nahi dionak finkatutako jardueraren jarraipena bermatu beharko du. Horrez gain, deialdira aurkezturikoek Beterri Buruntza Mankomunitatearen belaunaldi erreleboetako programan parte hartuko dute "tutoretza eta aholkularitza teknikoa jasoz". Berebiziko garrantzia du laguntza deialdi honen sustatzaileentzat, ezagutzaren transmisio erreala egitea ondorengotza prozesuetan, ezinbesteko baldintza dirulaguntza hau jasotzeko.

Eskaerak aurkezteko urtebeteko epealdia

Guztira, 35.800 euro bideratuko ditu Udalak. Honenbestez, "enpresa bakoitzak, gehienez ere, 17.900 euro eskuratzeko aukera izango du". Eskabideak 2027ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahalko dira, "prozesu bat delako, pausoak emateko denbora behar delako". Horregatik hain zuzen, epealdia "ahal den gehiena luzatu dugu". Dirulaguntza deialdiaren oinarriak irailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen Usurbilgo Udalak.

"DUDARIK EZ DA, BORROKATU BEHARKO DUGU TOKIKO ZERBITZUEK SEGIDA IZATEKO"

Deialdira aurkezten denari aholkularitza teknikoa eskainiko dio Beterri Buruntza Mankomunitateak. Haren ordezkari Aitor Falconen esanetan, haien egitekoa "zubi-lana" egitea da. negozio bakoitza utzi asmo duenaren eta haren ondorengotza bermatu nahi duenaren artean. Titulartasun aldaketa hutsetik haratago, jarduera bera aztertu, eta bideragarritasun plan bat lantzen dute, "jardueraren jarraipena ahalik eta berme handienarekin egin ahal izateko". Garrantzitsutzat jo zuen, prozesuok garaiz lantzea eta "trantsizio hau modu planifikatuan egitea" eta "urte guztietan sortutako balioa, ezagutza eta jarduera ekonomikoa bera mantentzea". Ondorengotza prozesu batean aurki daitezkeenei adierazi zienez, "ateak zabalik ditugu, orientazioa, aholkularitza, eta orokorrean, bidelaguntza eskaintzeko".

"ERRELEBOAN LAGUNDU NAHI DUGU, EZAGUTZAREN TRANSMISIOAN INDARRA JARRITA"

"Garaiz hastea garrantzitsua da"

Egitasmo hau bere bidea egiten hasia da. Udal zinegotziak aipatu agerraldian zioenez, "gaur pozik esan dezakegu, bidea zabaltzen ari garela. Pello arrandegiak badu ondorengoa eta dirulaguntza hau eskatzeko tramiteak egiten hasia da". Bide horretara tokiko zerbitzu gehiago batzea nahi lukete. Horregatik eragile inplikatuek egitasmo honi segida emateko asmoa agertu dute, "itxiera egunera arte itxaron gabe. Garaiz hastea garrantzitsua da, batipat, ezagutzaren transmisioa eman ahal izateko, urteetan, gure herrian lan egin duten merkatarien ezagutza hori, gero etorriko diren merkatari berrien esku jartzeko". Garrantzitsutzat jo zuen Begiristainek azken ideia hori, "ahalik eta gremio gehien bermatu ahal izateko eta herri honen eskaintza ahalik eta osatuena izateko". Argi denez, "hori ez da egun batetik bestera egiten, aurretik lana eskatzen du. Belaunaldi erreleboan lagundu nahi dugu, ezagutzaren transmisio horretan indarra jarrita".



Estreinakoz, iazko Gau Beltza sustaturiko herritar taldea. Harrera beroa izan zuen urriaren 31ko ekimenak Usurbilen.

Prestatzen hasi, badator Gau Beltza

lazko arimen gaua biziberrituko dute Usurbilen aurtengoan ere, hainbat gurasoek, herri eragile gehiagorekin lankidetzan. Prestaketa lan betean dira asteotan. Denen artean, Gau Beltza herriratuko dute aurtengoan bigarrenez.

ARITZ LASARTE

Arimen gau girotua izango du Usurbilek urriaren 31. Iluntasunean barneratu, beldurrak azaleratu eta haiei elkarrekin uxatzeko parada ederra izango da. Horretarako, dagoeneko hitzordu horren prestaketa lan betean da guraso talde bat, hainbat herri eragilerekin lankidetzan.

Aurreratu digutenez, gazteenek HH eta LH zikloetakoek iluntasunean jolasteko aukera izango dute lagunarte ederrean, Kalezar, Aranerreka edo Errekatxiki inguruan. Estimulu gehiagoko jolasak iragarri dituzte. Gero, 20:30ak aldera, parte hartzaile guztiak nahiz herritar orok bat egin ahalko duen kalejira abiatuko da Artzabaldik herriko plazarantz. Amaiera girotua izango du hitzorduak. Dantzan borobildu nahi da hitzordua. Beldurrak erretzeko aukera izango da. Hortxe, antolatzaileen lehen oharra. Ahal bada, etxetik orri batean erretzeko baliatuko den beldurra idatzita eramateko deia egin dute. Bestela, unean bertan ere beldurrok idatzi eta sutan birrintzeko aukera izango da. DBH 3-4 mailetakoek jatekoa eskainiko dute (sandwichak, tortillak), gaztaingileak hortxe izango dira jaki goxook zerbitzatzen. The Hastelen´s taldeak amaiera musikatua emango dio Gau Beltzari.

Aurtengo edizioa bideratzeko antolatzaile taldea saretu den arren, laguntza eskatu diete gainerako gurasoei. "Haien guztien inplikazioa behar dugu". Egokia litzateke haien esanetan, adin bereko ikaskideen multzokatze horretan, haien gurasoak hor egotea, haurrekiko duten ezagutza mailagatik hain zuzen, gogora ekarri duten moduan, beldurren kudeaketa sartzen baita Gau Beltzean. "Ez dakizu nola erreakzionatuko duten. Helduak inguruan behar dituzte".

"ADIN BEREKO SEME-ALABAK GENITUEN. BEHAR BAT ZEGOELA IKUSTEN GENUEN"

"INIZIATIBADUN NORBAIT FALTA ZEN. KALEZAR OSOA INPLIKATU ZEN"

"Beharra zela ikusten genuen"

Bigarrenez herriratuko da honenbestez, Gau Beltza Usurbilen, lankidetza marko baten baitan. Halere, badu aurrekaririk ospakizun honek, Kalezarren hain zuen. Bertako Belmonte auzo elkarteak hasitako lanketarekin ireki zen, tokiko, hau da herri honetan bertan landu, sortu eta herri honi zuzenduriko bertako Gau Beltza ospatzen hasteko ohitura. Lanketa horretara batu zen, egun, Usurbilgo hitzordua antolatzen ari den guraso taldea. "Adin bereko seme-alabak genituen. Behar bat zegoela ikusten genuen". Atzerritik heldutako ohitura indarra hartzen hasia zen inguruotan, eta alternatiba nahi eta behar zuten, tokikoa. "Saria edo zioria izeneko etxez etxeko ohitura hori beste bide batetik joatea nahi genuen", aipatu digute gurasook; "geure Arimen Gaua berreskuratu eta haurren artean ezagutarazi" nahi zuten, jada beste herri hainbatetan egiten ari ziren moduan.

Aurrera jotzea erabaki zuten Kalezarren. Arrakasta itzela izan zuen 2022ko deialdi hark. "Iniziatiba hartuko zuen norbait falta zen. Egitea erabakitakoan, Kalezar osoa inplikatu zen"; tartean, heldu asko, lerrootako elkarrizketatuek oroitarazi digutenez. "Auzo elkartearen ilusioa, dekorazioan eginiko lana" nabarmendu digute. "Une oso politak bizi izan ziren prestaketa lanetan", auzoa harremantzen lagundu zutenak.

Egunean bertan, laburbilduz, "Kalezar itxi egin zuten". Iluntasunean barneraturiko auzo magikoan bilakarazi zuten duela lau urte. "Jarritako itxitura zeharkatuz gero, ezusteez beteriko zirkuituan sartu eta iluntasunean barneratu zintezkeen. Oso polita, misterio-

⟶ tsua zen. Bertako jendea sustoak eragiten aritu zen". Ez zekiten zer harrera izango zuen. Hasiera batean, 60 lagunentzako jolasak prestatuak zituzten, baina egoerak gainezka egin zien. Azkenean, euria egin arren, jendetza batu zen. "Jendeak gogotik gozatu zuen". Aitortza berezia egin nahi diete antolatzen gogotik jardundako helduei. Hitzordu hark argi azaleratu zuen gurasoon esanetan, halako ekimen baten beharra bazela herrian.



Gau Beltzeko kalejira argiztatu zuen taldea iaz. Bueltan izango dira berriz urriaren 31n, Artzabaldik abiatuko den biran.

Familia girokoa

Urtebete geroago, Kalezarko esperientzia ez zen errepikatu. Hori horrela, gurasook haien kontutik beraien adin bereko seme-alabentzat antolatu zuten aparteko Gau Beltza, bi urtez segidan. "Ardura handia zen Kalezarko dimentsioko zerbait antolatzea. Ez genuen nahikoa indar" horretarako. Baina bidea irekia zen, gogoa ere bai Gau Beltz horri segida emateko. Formatu txikiago horretan, haien kasa segi zuten ospatzen. Gurasoek eta haurrek aurrez eginiko prestaketa lanen ondotik, linternak eskuetan Aranerrekan eginiko pisten jokoan parte hartu zuten, txorimalo handi baten bueltan mozorrotu ziren... Bertan agertu zen estreinakoz, jada ezagun eginiko Hezur Lapur, ipuin bilakatua eta aurten bueltan datorrena. "Guraso baten motibazioaren islada" izan zen. Izan ere, gurasoen ekarpenetatik sortu zen hori guztia; pertsonaia sortzea, mozorroak, dekorazioa, girotzea, jolasak... Prestaketa lanetan soilik ez, familia giro beteko Gau Beltz haietan ere, helduek zuzeneko parte hartzea izan zuten. "Sustoa ematen oso ondo pasatzen da guraso bezala ere. Oso polita da", aitortu digute. Lehenbiziko urtean, hamar haurreko talde batentzat prestatu zuten ekimena; baina Usurbilera hedatu aurretik, haien maila bereko gainerako ikaskideekin ospatzera heldu ziren Gau Beltza. Gurasook, ordea, parte hartzaile ez ziren seme-alaba helduago gehiago zituzten, ospakizun horretan murgiltzeko gogo biziz zirenak. Girotze lanetan aritu ziren, "oso gustura, gazteagoak bideratu eta laguntzen", amekin eta aitekin batera.

Ekimenerako hautaturiko lekuarekin bete-betean asmatu zuten, gainera; iluntasuna berezkoa duen Aranerreka ingurua. "Ez zekiten zer gertatuko zen; zer, nondik aterako zen. Kolpetik Hezur Lapur agertu zen".

Gurasoen aktibaziorako

Guztiek gozarazten segi dutelako jarraitu zuten Gau Beltza bizitzen. Argi diote, orain herriratu bada, herri eragileen bidelaguntzari esker izan dela. Iaz eman zen urrats hori. "Elkarlanera batutako eragileek ospakizuna zabaldu beharra ikusi zuten". Hedatze lan horretan eragiten jardundakoen artean, NOAUA! K.E.-rekin, Zirimararekin, Gaztelekuarekin edota Orbeldi dantza taldekoekin batera, Udarregi ikastola dago. Ikastolako Hizkuntz Proiektuko (HIZPRO) kide eta gurasookin lankidetzan aritutako haien seme-alaben tutore izandako Ursula Zubimendik hedabide honi adierazitakoaren arabera, "Halloween estilora mozorrotuta etortzen hasi ziren, indarra hartzen ari zen". Inguruko hainbat herrietan, Gau Beltzaren ildoa jorratzen hasiak zirela ikusita, modu antolatu gabean "erreferentziak egiten hasi ginen", lekua egiten, ikastolako jardunean.

Gurasoon dinamikaren harira, HIZPRO-n gaia jorratu eta aktibatzea erabaki zuten. Gau Beltza Usurbilen antolatzeari ekin zioten. Ikastola barruan bi norantzatan lan egin dute. Batetik, ikasgelan, ohitura hau "biziberritzen saiatu gara". Euskal ohitura gisa jorratu nahiz emozioen lanketa bideratzen dabiltza, beldurra jopuntuan izaten du eta Gau Beltzak. Horrez gain, gurasoak ere aktibatu nahian ari dira urteotan. "Ea familiak sartzea lortu eta egitasmo honek bere lekua hartzen duen Usurbilen". Desio dutena da, abiapuntua izan dadila, "euskarari eta euskal kulturari lotutako ekimenetan familien presentzia gehiago izateko eta hartara komunitatea egin eta ekintzailetasuna sustatzeko". Era berean, garai egokitzat jo dute ikastolatik, azken urtean heriotzaren pedagogiaren bueltan eginiko lanketari ere lekua egiteko Gau Beltzaren atarian.

"SUSTOA EMATEN ONDO PASATZEN DA GURASO BEZALA ERE. OSO POLITA DA"

"ERAGILEEK OSPAKIZUNA HERRIRA ZABALDU BEHARRA IKUSI ZUTEN"

"Mozorrotu eta etorri!"

Argi denez, herri nortasunean oinarrituriko Gau Beltza ari dira eraikitzen eragile guztiok, aurtengoan berriz ikusiko den moduan. Biziberritzen ari diren ohiturari bizirik eutsi eta hurrengo belaunaldiei transmititzen laguntzeko deia egin dute. "Sor dezagun denon artean beste herri bat Arimen Gauean. Mozorrotu eta etorri!", egin dute gonbita.



Carola Giraudo eta Ander Zuloaga, "Hezur Lapur" ipuinaren sortzaileak.

"Irakurriz gozatu, Hezur Lapurren istorioarekin jolastu"

CAROLA GIRAUDO ETA ANDER ZULOAGA "HEZUR LAPUR" IPUINAREN SORTZAILEAK

NOAUA! K.E.-rekin batera argitaratu dute irudiko bi herrikideek urteotan herrian ezagutarazten joandako Gau Beltzako protagonistaren istorioa; hilaren 31n bueltan datorkigun Hezur Lapurrena.

Aurreko Gau Beltzetan ospaturiko hezurren bilaketa joko batetik eratorritakoa da Hezur Lapur ezta?

Carola Giraudo: Gau Beltza Kalezarren antolatzen hastean, hezurrak bilatzeko jolasa egin zen bertan. Ginkana moduko hartan, iluntasunean hezurrak aurkitu behar ziren, begiak estalita eta eskuz.

Ander Zuloaga: Joko desberdinak zeuden ilunpean beldurrarekin jolasteko. Horietako bat zen hezurren bilaketarena. Artean, Hezur Lapur oraindik ez zen pertsonaia.

C.G.: Hezurrak bilatzeko joko horretan, hezurrak, argia, beldurra... Hezur Lapurren istorioa jaio zen.

Zergatik ikusi zenuten kontatzeko moduko istorioa sor zitekeela?

A.Z.: Halako istorioen elementuak biltzen ditu ipuinak. Pertsonaia bat izatea, bertakoa, istorio bat kontatuko zuena, hemengo lekuak aipatuz, bazen berriz ere Halloween lapurtzen ari zen hilen, beldurren mundua geureganatzeko modu bat. Orduan, pertsonaia bat izatea, bertakoa, tokikoa, inauterietan gertatzen den moduan, istorio batekin bildua datorrena, iruditzen zitzaigun, aurrez galdutako espazio hori irabazi eta haurrak zein gurasoak hurbiltzeko modu bat izan zitekeela.

"GAU BELTZAZ HITZ EGITEN ENTZUTEN DA JENDEA. GAU HORRI BURUZKO DISKURTSOA ALDATZEN ARI DA"

"URTETIK URTERA JENDE GEHIAGO BILTZEN ARI DA. ASMOA, ESPAZIOA ZABALTZEN JOATEA DA"

Beldurraren aurreko antidoto gisa uler daiteke ipuina?

C.G.: Beldurrarekin jolasten ikasteko. Beldurra komunitatean bizi eta uxatzeko. Ipuina lanketarako instrumentu bat da.

Instrumentu bizidun bat, iazko Gau Beltzean Hezur Lapur plazaratu ostean.

C.G.: Istorioak beste dimentsio bat hartu zuen. Kalean nengoenean entzuten nien haurrei, Hezur Lapur zetorrela esaten. Hori ona da, istorioa herrian txertatzen joateko. Ahoz ahokoak lehendik zegoena berpiztu du. Gau Beltzaz hitz egiten entzuten da jendea. Diskurtsoa aldatzen ari da. Gau Beltza forma hartzen hasi da.

A.Z.: Euskarri bat eman dio, aitzakia txiki bat, horren bueltan lan pedagogiko bat egiteko ikastolak, gurasoek. Urtetik urtera, jende gehiago biltzen ari da. Asmoa da espazioa zabaltzen joatea.

Tresna garrantzitsua iruditeria bat sortzen laguntzen duelako eta hala, plazan lekua errazago hartu dezake Gau Beltzak.

A.Z.: "Saria edo ziria" ohitura hori ahultzeko bertako elementuak dira haurren iruditerian sartzen ari direnak. Irudiek eta hitzek garrantzia dute. Garrantzia du haurrentzako ordezko elementuak izateak, berriak izan arren. Beti tradizioaren bila ibiltzen gara, baina ez dagoenean, ahal dela, zergatik ez gureak sortu?

C.G.: Ipuin honen atzean dagoena ez da soilik beldurrarekin jolastea. Ez da soilik argia galtzea iluntasunak harrapatzen zaituenean, argia taldean bilatzea baizik, kolektiboki. Beldurrak denok ditugu. Gau Beltza da hori ospakizun bilakatzen duena.

A.Z.: Gau Beltzaren amaieran kantatu eta dantzatu egiten da. Hori hala egitea beldurrak uxatzeko sistema bat izan da beti eta funtzionatzen du, oihu egin eta kanporatzeak. Azke-



"Hezur Lapur" argitalpena ikastetxeetan, NOAUA!-ren egoitzan nahiz Sutegi udal liburutegian eskuratu daiteke.

nean, arazo gehienen erantzuna kolektiboa da, elkarrekin batera gauzak egitea. Honek ere badu hortik eta hori ere aldarrikatzen du.

Beldurretik ihes egin beharrean kontrakoa, bizi eta elkarrekin uxatzea.

A.Z.: Elkarrekin, dantzaren eta oihuaren bidez erantzun eta modu horretan, barruko korapiloa askatzea.

C.G.: Festa honen bidez, beldurrarekin jolastu, ondo pasa eta oihukatuz beldurrak komunitatean uxatzea.

Testuinguru horretan jaio eta joan da hazten Hezur Lapurren mitoa.

A.Z.: Kalezarko Gau Beltzetik hona kolektiboki joan da hazten. Grabatu genuen istorioa ahotsez.

C.G.: Ipuina kontatu ahala, haurrek pauso batzuk eman zituzten. Inprimatu genuen eta ikastolako gelan zabaldu genuen. Iaz herriratu zen Usurbilen. Herriko plazaraino iritsi ginen. Liburua inprimatua dugu orain.

NOAUA! Kultur Elkartearekin argitaraturiko zuen ipuina nortzuen eskuetara heltzea nahiko zenukete?

A.Z.: Tresnatxo bat izan liteke etxean izan eta haurrek ere irudi bat izateko. Carolak ez dio forma jakin bat eman nahi izan pertsonaiari. Hezur Lapurrek begietan du argitasuna, gainerakoa iluna. Horregatik, misteriotsua da, ez du forma zehatzik. Bestalde, ipuinaren hedapenean ikastola gakoa izan da. Udarregira iritsi da guraso talde baten bidez. Haiek gustukoa izan eta lanketa egitea posible ikusi zuten.

Sorkuntza prozesua bion arteko elkarlana lana izan da. Nola joan zarete josten lankidetzan, hitzak eta irudiak?

A.Z.: Carola diseinatzailea da. Askotan kolaboratu izan dugu gauza askotan. Hitzen edo leloen lanketan parte hartu izan dut berarekin. Gauza horiek egiten oso ohituak gaude. Elkarri laguntzen diogu askotan.

"IAZ, HERRIKO PLAZARAINO IRITSI GINEN. LIBURUA PAPEREAN INPRIMATUA DUGU ORAIN"

C.G.: Azkenean, ikastolako haurren aiton-amonekin Hezur Lapurri buruzko bideotxoa egin dugu gaztetxoak girotzeko.

A.Z.: Kontakizuna janzten saiatu gara misterio pixka batekin. Guk gustura egin dugu, gozatu egin dugu eta horren ondorio da, bakoitzak bere etxean grabatutako bideoa, segidan ekoitzi duguna. Batzuetan, bistan da, baliabide gutxirekin egin daitezke gauzak.

Hezur Lapur nolakoa dela esango zenukete?

A.Z.: Istorioaren prekuelarik ez dugu egia esan eta zein den pentsatzekoa da. Garai batean, gurekin batera bizi ziren pertsonaiak gugandik urruntzen joan dira, hainbat kontuengatik ezin zutelako gurekin bizi. Ez da pertsonaia gaiztoa, nahiz eta pentsatu beharko litzatekeen zertarako behar duen besteen argia. Hori argitu gabe dugu. Ez da gaiztoa edo zintzoa, beldurra ematen du. Baina hausnartu beharko genuke zergatik behar duen besteen argia, zergatik lapurtu behar digun barruko argia, arima. Hor badago esploratzeko bide bat.

"BETI EXISTITU IZAN BALITZ BEZALA HERRIAN TXERTATU IZANA, SARI POLITAGORIK EZ DA"

C.G.: Bere argia bilatzea afizioa da, une honetan ez dakigu zergatik. Berak berea ez duelako?

Aurtengo Gau Beltzarako zer nolako gonbita helarazi nahiko zenukete?

A.Z.: Gau Beltzaren talde lana nabarmendu nahiko nuke. Prestaketa lanetarako, aurretik haurrak, gurasoak biltzeko beste aitzakia bat da. Festa honen protagonista, heriotza, beldurra eta iluntasuna da, baina Usurbilen beste gauza askori erantzuten zaion bezala, kolektiboki ospatu eta erantzuteko gonbita egin nahiko genuke. Hau da beste gauza bat elkarrekin egin daitekeena, herria eraikitzen duena eta kasu honetan, erantzuten zaio beldurrari, baina denon artean, ahalik eta jende gehien bilduta festa egunean eta aurretik jolasak prestatzen, eskulanekin eta belaunaldi ezberdinetakoak beste rol batean arituta. Herria egiteko beste aitzakia edo beste arrazoi bat gehiago da.

Hezur Lapurri buruzko istorioak zer nolako ibilbidea egitea nahiko zenukete?

A.Z.: Beti existitu izan balitz bezala herrian txertatu izana, hori baino sari politagorik ez dago. Haurrek gurasoekin, elkarrekin ahotan hartzearen poderioz, Usurbilgo beste elementu batean bilakatzea, hori sari bat da.

C.G.: Gozatu irakurriz, istorioarekin jolastu. Beldurrarekin jolastu eta bizi. Gogoan izan "agur Hezur Lapur! Agur beldur!", hori da amaierako mezua.



Zenbat dira?



- Marka itzazu irudi honetan daude sagu guztiak. Zortzi daude.



- Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu?

Labirintoa

Lagundu mamu honi bere etxe sorginduraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu, eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tarteak dira.

sekuentzia





Idatzi hemen esaldia. _____

Soluzioak 20. orrialdean.














Itzala

Zein da eszena honen itzal zuzena?

Handienetik txikienera

Ordena itzazu zazpi kuia hauek handienetik (1) txikienera (7).



Zeeeerrr?!

Zure ustez, zer esan dio zonbi batek besteari gurutzatu direnean? Idatzi bunbuiloan. Bide batez, margotu irudi osoa.



Soluzioak 20. orrialdean.



Bertso-afariko kideak Ibai-Ondo elkartearen atarian. SANTUENEA K.E.

Bertso saio ederra, lagunarteko afariaren bueltan

Azken urteotan, garai honetan egin ohi duten ekitaldiko irudia duzue goikoa. Santuenea K.E.-k bertso-afaria antolatu zuen urriaren 16an, auzoko Ibai-Ondo elkartean. Bertan sukaldaturiko afari ederra dastatu ahal izan zuten hitzordura joandakoek. Horrekin batera, noski, afalostean bertso saio ederraz gozatu zuten. Antolakuntzak aurrez jakinarazi moduan, Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Miren Artetxe aritu ziren bertsotan. Santuenea Kultur Elkarteko kide Onintza Gartzia aritu zen gaiak jartzen.



Ibiltari talde bat, Santueneako informazio gunean.

Eskualdean barrena tipi-tapa, gertuko bazterrak hobekiago ezagutzen

Giro eguzkitsua lagun egin zuten urriaren 18an, Buruntzaldeko Ibilbideen 18. Eguna. Eskualdeko bazterrak hobeto ezagutu eta ariketa fisikoa sustatzeko aukera aparta eskaini zuten eskualdeko Udalek, eragile gehiagorekin lankidetzan. Helmugetako bat izan zen, Santuenean antolatzaileek egokituriko postua. Abiapuntuan bezala, parte hartzaileek ekimeneko txartela zigilatzeko aukera izan zuten, mokadutxoa jasotzearekin batera. Ibilbideok noiznahi osa daitezke, panelen nahiz Navi Ruta aplikazioaren laguntzaz.



Onintza Enbeita, bere sorkuntza lana eskuartean duela.

Onintza Enbeitak bere liburua aurkeztu zuen Emakumeon Etxean

Feli Madariaga Torrealdairen bizitza du mintzagai, Onintza Enbeitaren "Bizitza baten txatalak, andre bat lurrari emana" liburuak. Hilabete hasieran aurkeztu zuen Emakumeon Etxean. Liburua "irakurterraza eta ez luzeegia" izatea nahi zuen Enbeitak, Felik ere liburua irakurri zezan. Liburua Argiako Bizi Baratzaren bildumako bigarren argitalpena da. Madariagaren hainbat esaldi nabarmendu zituen Enbeitak, hemen horietako bat: "Ama eta lurra beti ematen ari dira, baina ez badiozu itzultzen agortu egiten da".



Alex Tello, "Animo" filmari buruzko azalpenak ematen.

"Animo" filma proiektatu zuten Zubieta Lanbide Eskolan

Zubieta Lantzen elkarteak antolatuta, Alex Telloren "Animo!" filma proiektatu zuten hilabete hasieran Zubieta Lanbide Eskolan. Egileak azaldu zuenez, filmak hasieran film laburra izan behar zuen, eta horregatik, atalka antolatuta dagoela jakinarazi zuen. Dena den, atalok haien artean lotura dutela onartu zuen. Telmo Irureta aktorea da protagonista, baina Elena Iruretak, Joxe Ramon Soroizek eta Dorleta Urretabizkaiak, besteak beste, filmean parte hartu zuten. Natali Izagirre usurbildarra ere filmean agertzen da.



Urriaren 28an asteazkena, Amaia Elizagoien ipuin kontalaria Sutegin arituko da. 18:30ean hasiko da saioa.

"Gure irudimenean eraikitzen dira ipuinak"

AMAIA ELIZAGOIEN IPUIN-KONTALARIA

Amaia Elizagoien Oronozen jaiotako artista da. Bakarka zein beste lankide batekin kontatzen ditu ipuinak. Urriaren 28ko saioan, Irati Celestinorekin batera jardungo du udal liburutegian.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

Nola hasi zinen ipuin-kontalaritzan?

Goi mailako ziklo bat ikasten ari nintzen, haur hezkuntzakoa hain zuzen ere, eta bertan ipuin-kontalaritzaren ikasgaia genuen. Hori izan zen nire lehen esperientzia ofizioarekin. Esperientzia horrek lagundu zidan oroitzapen batzuk, eta ohartu nintzen bazegoela zerbait nire izatearekin konektatzen zuena. Izan ere, iruditzen zait zorionekoak garela Euskal Herrian jaio izanagatik, eta horrelako kultura aberatsaren parte izategatik. Poliki-poliki ikusi nuen hori zela nire bidea, eta ipuinak berak eraman nau gaur egun naizen honetara.

Nolakoak dira irakurtzen dituzun ipuinak?

Denetarik dago. Aunitzetan liburua irakurri eta zerbait mugitzen didanean barrenean erabakitzen dut hori dela kontatu nahi dudan istorioa. Azkenean ez da hainbeste zer istorio mota den baizik eta istorioak zer harreman duen zurekin, zu izango baitzara ipuinaren eta publikoaren arteko zubia. Atxikimendu honengatik Euskal Herriko istorioek eta mitologiarekin lotutako istorioek kontatzeko gogoa sorrarazten didate, baina ez dute beti tradizionalak edo gure arbasoetatik datozen istorioak izan behar. Beste lekuetako istorioak izan daitezke, baina kasu horietan, gure herrira ekartzen eta gure herrian kokatzen saiatzen naiz.

Zeini bideratuak daude ipuinak?

Ipuinek ez dute adinik. Azken urteetan, kontalariok lan handia egiten ari gara, erabat infantilizatua dagoen ofizio honi bere lekua emateko. Gaur egun, inoiz baino behar gehiago dugu ipuinekin bidaiatzeko baita gure sormenari lekua emateko ere. Azken finean, ipuinak gure irudimenean eraikitzen dira eta konbentzituta nago, haurrez gain, helduek ere aunitz gozatzen dutela istorioekin. Gure borroka hori izaten da; gizartera zabaltzen saiatzea itzalpean dagoen ofizio hau, eta horrez gain, denek goza dezatela ipuinen bitartez eta gure ondarearen bitartez.

Aldaketa dago bakarrik egiten duzunean eta musikariarekin egiten duzuenean?

Lanketa desberdina da. Izan ere, musikariarekin istorioak kontatzen ditudanean bi ahots daude: hitzarena edo nirea, eta musikarena edo nire lankidearena. Musikak ere kontatzen du, eta saiatzen gara elkarrizketa hori sortzen. Bakarlari gisa noanean, esango nuke elkarrizketa nik eta isiltasunak osatzen dugula. Esango nuke esperientzia ezberdina dela, eta musikak baduela atmosfera berezi bat sortzeko gaitasuna, eramaten gaituela oroitzapen batera. Bi oso estilo berezi dira kontatzeko. Bakoitzak bere xarma du, baina nire kasuan, saio musikatuak maite ditut.

"IPUINAREN ETA PUBLIKOAREN ARTEKO ZUBIA DA IPUIN KONTALARIA"

943 361182
EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL

ANDATZA TABERNA
8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
Kalezar Auzoa 12, OB, USURBIL Tel 943 73 20 27

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835



"Ez dira lehenagoko solfeo eskola zahar horiek izango", Jon Makusok argitu digunez. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Musika ikasten hasteko inoiz ez da berandu"

JON MAKUSO ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA

Zumarte Musika Eskolak 'Mintzaira +18' ikastaroa antolatu du estreinakoz. Jon Makuso izango da irakaslea, eta haren esperientziaz eta ikastaroaz hitz egin dugu berarekin.

Aurten ikastaro berri bat iragarri du Zumartek: Mintzaira +18. Zer irakatsiko duzu?

Bere garaian musika ikasi ezin izan zuten pertsonentzat pentsatuta dago. Ikasturte hasiera honetan, eskaera egon da musika eskolan, eta herriko behar bati erantzun bat emateko atera da ikastaroa. Arantza hori duten pertsona helduei erantzuna emateko da gehienbat, ez gelditzeko horrekin.

Ez da inoiz berandu musika ikasteko, eta horregatik uste dugu, egokia dela ikastaro hau ateratzea, jendea interesatuta etorri delako, eta musika eskola gisa zerbitzu hori eskaintzeko.

Musika instrumentuak jotzen ikasiko dute?

Ez, gehienbat solfeoa, baina denetik pixka bat ikasiko dute. Ikusi beharko da zer profileko ikasleak ditugun; ez dakitenak, pixka bat dakitenak, gehixeago dakitenak izango ote diren edota hutsetik hasi eta pixka bat sakontzeko ikastaroa izango ote den. Hurbildu den jendea solfeo eskaerarekin etorri da. Nahiko balute, posible litzateke ikastaroan sakontzea, gero instrumentu bat jotzeko aukera izateko erreminta gisa. Azken finean, instrumentu bat jotzeak eskatzen du partitura bat irakurtzen jakitea. Horretarako, lehen pausoa musikaren lengoaia ezagutzea da. Esan dudan moduan, liburu bat idazteko irakurtzen jakin behar da, ba hau gauza bera da.

Zenbat ikaslek eman dute izena?

Momentuz, matrikulazioa irekita dago, eta urriaren 24an bukatzen da epea. Printzipioz, ez dago ikasle mugarik. Ikusiko dugu nolako eskaera eta matrikulatu kopurua dagoen, baina talde bat ateratzeko asmoa dago.

"IKASLEEKIN HITZ EGINGO NUKE ETA HAIEKIN ADOSTUKO NUKE IKASTAROAN NON SAKONDU NAHI DUTEN"

Noiz izango dira klaseak?

Astean behin, ostegunetan arratsaldeko 16:00etan. Ordubeteko saioa izango da, eta asteroko maiztasuna edukiko du. Hor joango gara ikusten zer landu behar dugun, noten irakurketa, erritmoa, mugimendua erritmoarekin... Matrikulatutakoekin hitz egingo nuke, eta haiekin adostuko nuke ikastaroan non sakondu nahi duten.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Jendea animatu nahiko nuke, inoiz ez delako berandu musika ikasten hasteko. Zumarte komunitatearen parte izateko ere lagunduko du Mintzairan izen emateak, musika egiteak bere onurak dituela arlo fisikoan, emozionalean eta neuronalean. Ondo pasako dugu, klaseak dinamikoagoak izango dira.

Zumarte Musika Eskolako ikastaroak

Ikastarootako matrikulazio epea urriaren 23an amaituko da. Eskolak azaroaren 2an hasi eta ekainaren 18ra arte luzatuko dira:

• Musika Mintzaira+18 urte (taldean): ostegunero 16:00-17:00 artean, Jon Makusoren gidaritzapean. Prezioa: matrikula 119 euro+26 euro hilean.

• Gitarra+55 urte (taldean): asteartero 10:00-11:00 artean, Ixak Arrutiren gidaritzapean. Prezioa: matrikula 119 euro+26 euro hilean.

• Dultzaina: astean behin ordu-erdiz. Prezioa: matrikula 163 euro+34 euro hilean.

• Baxu elektrikoa: astero ordu-erdiz. Prezioa: matrikula 163 euro+34 euro hilean.

•Ordainketak: ordaindu beharreko hileko kuotak zortzi izango dira, azarotik ekainera.



Azaroaren 1ean Mihisek dokumentala eskainiko du eguerdiko 11:00etan eta ondoren hasiko da 'Anariketa' bertsio ikuskizuna.

Oparoago dator Booktegi jaialdia

Hiru eguneko iraupena izango du eta ekimen berriekin itzuliko da urriaren 30etik azaroaren 1era, Booktegi jaialdia. 2022an abiarazi zuen euskarazko literatura guztion esku jartzen diharduen elkarteak ekimen hau. Aurtengoa, beraz, bosgarren edizioa izango da.

Urriak 30, ostirala

• 19:00 Solasaldia Ruper Ordorikarekin Sutegin. "2025eko Booktegi Jaialdian Rupertorio ekitaldia antolatu genuen. Aurten, Ruper Ordorikaren kontzertuaz gain, solasaldia ere izango dugu. Solasaldiaren moderatzaileak Itxaro Borda eta Aritz Branton izango dira, eta Booktegiko bazkideek bidalitako galderak partekatuko dituzte Ruperrekin".

Urriak 31, larunbata

• 10:30 "Elkarri irakurriz" solasaldiak Zumarte Musika Eskolan. Parte hartzaileak: -Sotoa taldea: Bea Salaberri, Iñigo Satrustegi, Harkaitz Cano. -Ganbara taldea: Amaiur Epher, Lizar Begoña, Agustin Arrieta. "Bi solasaldiak urriaren 31n egingo ditugu, eta tartean mokadu bat hartzeko aukera izango dugu. Ipuinak izango dituzte mintzagai idazleek, baita literatura eta kultur orokorra ere. Irati Zubia izango da moderatzailea. Bestetik, egun horretan Amaiur ezin da etorri, eta Ugaitz Agirrek ordezkatuko du".

• 17:00 Booktubers bideoak. "Udarregi Iksatolako ikasleek, iaz bezala, hainbat liburu gomendatuko dizkigute bideo-formatuan".

• Ondoren, Arbaso Eguna mahai-jokoa Sutegin. "Arbaso Eguna mahai-jolas narratibo eta kolaboratiboa da. Rol-jolasaren tresnak erabiltzen ditu, baina ez da beharrezkoa aurretik rol-jokoetan esperientziarik izatea. Helburua erraza da: etorkizuneko komunitate batek gaurko erronka handi bat gainditu duela irudikatzea, eta ondoren galdetzea nola iritsi garen horra".

• 19:00 Ruper Ordorika eta Mugalariak Sutegin. Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman sarrera eskuratu eta eskudirutan ordainduko da (15 euro) Sutegi atarian. Oharra: "18:45 baino lehenago iritsi, mesedez. Beranduago etortzen bazara eta norbaitek eskatzen badu, gerta liteke zure sarrera eskatzen duen horrek jasotzea".

Azaroak 1, igandea

• 11:00 Mihise musika taldearen "Ahaldatu" kontzertu baten filma Sutegin. "2025eko urriaren 17an, Sutegin, Mihise taldeak bere bigarren diskoa aurkeztu zuen: Ahaldatu. Kontzertua grabatu genuen, eta aurtengo Booktegi Jaialdian aurkeztuko dugu kontzertuaren filma".

• 12:00 Anariketa Sutegin. "Hainbat lagunek abesti bana nahi duten moduan interpretatuko dute". Iazko Rupertorio ekitaldian bezala, aurten hainbat lagunek Anariren abesti bana hautatu dute, eta zuzenean abesti horiek interpretatu egingo dituzte, nork bere erara. Interpretatzaile bakoitzak abestiaren inguruko ideiak, emozioak, pasarteak partekatuko ditu gurekin". Informazio gehiago: Sutegin.

Informazio gehiago:
booktegi.eus

Sarrerak:
Aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

ANARIKETAN, ANIMATZEN DIRENEK ANARIREN ABESTI BANA INTERPRETATUKO DUTE

Autxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus

Europak Arrobitxulo elkargunearen proiektua saritu du

Europako NEB ("New European Bauhaus Prizes") saria jaso du Arrobitxulo proiektuak, egunotan Bruselan.



Udal ordezkaritza saria eskuartean duela Bruselan. USURBILGO UDALA

20.000 biztanlez azpiko udalerrietako proiektuak saritzen ditu Europako Batzordeak bultzatutako "NEB Boost for Small Municipalities" izeneko egitasmoak. Iraunkortasuna, inklusibotasuna eta "proiektuen edertasuna eta kalitatea pertsonen onurarako baliatzea" saritzen dute ekimen horren bidez. "Lan printzipioak, partaidetza, maila anitzeko komunitatearen inplikazioa eta diziplinartekotasuna dira", Udaletik jakinarazitakoaren arabera. "Proiektuen hastapenetan izan ditzaketen oztopoak gainditzen lagundu eta bultzada emateko" izaten da sariketa.

"Zuena da"

Sariotako bat Arrobitxulok jaso zuen iragan astean Bruselan. Bertara joan zen udal ordezkaritza bat, saria jaso eta erronkak gainerakoekin partekatzen. Jon Mikel Azpiazu Gazteria eta Kultura zinegotziak jaso zuen saria. "Nabarmendu zuenez, herriko kultur eta gazte eragileek bultzatutako proiektu honek herritarren arteko topaketa, ezagutza eta elkarlana ahalbidetuko ditu, euskal kulturaren transmisioa bultzatzearekin batera". Elkarguneak komunitate izaera sendotzeko duen bokazioa gaineratu zuen Azpiazuk. Izan ere, "gero eta indibidualagoa den gizarte joera higatzeko ahalegina da". Bruselan jasotako saia kultur arloko zinegotziaren esanetan, "Arrobitxulo proiektua abiatu, bultzatu eta ekarpenak egin dituzten guztien lanari esker izan da: zuena da sari hau!".

"PROIEKTUA BULTZATURIKO GUZTIEN LANARI ESKER, ZUENA DA SARI HAU!"

Yolanda Arrietaren "Zurtz", Euskadi Literatura Saria

Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren "Zurtz" sorkuntza lanari emango diote aurtengo Euskadi Literatura sarietako bat.



Yolanda Arrieta, Eusko Jaurlaritzak jakinarazitako lehen sarituekin.

2026ko Euskadi Literatura Sarien lehen hiru irabazleak ezagutarazi ditu Eusko Jaurlaritzak egunotan; horien artean da, Yolanda Arrieta Malaxetxebarria. Denonartearen argitaletxearen "Zurtz" izeneko bere sorkuntza lanari emango diote aurtengo Euskarazko Haur eta Gazte Literaturaren Saria.

Jaurlaritzak jakinarazitakoaren arabera, "epaimahaiak lanak umezurtztasunaren kontzeptuari ematen dion esanahi zabala eta iradokitzailea, bere adiera literaletik harago doana, eta pertsonaien ikuspegi desberdinen bidez eraikitako kontakizun-egitura aberats eta poliedrikoa nabarmendu du. Eleberriak sentiberatasunez jorratzen ditu hazkundearekin, nortasun propioaren bilaketarekin eta desberdina sentitzearekin lotutako bizipenak. Bakardadea, galera eta beste pertsona batzuengan aurki daitezkeen loturak ere lantzen ditu, sentimentalismoan erori gabe. Epaimahaiak, gainera, hizkuntzaren zaintza, kontakizunaren erritmoa eta zenbait esaldiren indarra azpimarratu ditu".

Azaroan jasoko du saria

Sari-banaketa ekitaldia azaroaren 20an egingo dute, arratsaldeko 18:00etan Bilboko Euskal Museoan. Sari hauen bidez, "Eusko Jaurlaritzak literatura-sorkuntza, talentu artistikoa eta obren nahiz haien egileen zabalkundea sustatu nahi ditu".

"SARI-BANAKETA EKITALDIA AZAROAREN 20AN EGINGO DUTE"



Eskaerak egiteko epea hilabetekoa izango da.

Geuretik Sortuak egitasmoaren edizio berria martxan

Euskarazko kultur sorkuntza sustatzea xede duen dirulaguntza deialdiaren oinarri arautzaileak kaleratu zituen Udalbiltzak, urriaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez.

Euskarazko kultur sorkuntza sustatzea xede duen egitasmoari lotutako dirulaguntza deialdiaren oinarri arautzaileak kaleratu zituen Udalbiltzak, urriaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez. Eskaerak aurkezteko hilabeteko epealdia finkatu dute. "Laguntza hauen helburua euskal artisten sormena eta euskal herrietako historia eta idiosinkrasia uztartzea da", Udalbiltzaren esanetan.

Datorren urtarrilean, aurkeztuko ditu Udalbiltzak proiektu sarituak eta sortzaile bakoitzari esleituko zaion udalerria. Izan ere, Udalbiltzaren egitasmoaren helburua hain zuzen, "herrian herriko istorio baten oinarritutako kontakizun artelana sortzea izango da, betiere euskaraz. Horretarako, kulturgileek esleitutako herrietan 3 asteko egonaldiak egingo dituzte, herriko istorioak eta pertsonak ezagutu eta proiektua landu ahal izateko".

Artistak, joan etorrian

Aurreko edizioen ildotik, oraingo honek ere "bereziki, artisten sormena eta herrietako idiosinkrasia uztartzea du helburu, lankidetza honen bidez sortzaileen eta udalerrien arteko lotura bat sortuz, eta ondorioz, euskarazko obra artistikoak sortuz, hainbat udalerritan aurkezpen eta emanaldi zirkuitu baten bidez zabalduko direnak".

Sorreratik, Usurbilgo Udalak sustatu du egitasmo hau. Usurbilen egonaldia egin dute, Itxaro Borda idazleak, Iñaki Martiarena marrazkilariak edota Jon Ander Urresti antzezleak. Tarte berean, herriko sortzaile hainbatek parte hartu dute Geuretik Sortuak egitasmoan:Yolanda Arrieta, Ugaitz Agirre eta Ixabel Agirresarobek.

Peru Galbete, "Pai Sai" kaleratzear

Labetik ateratzear du Peru Galbete Labianok bere sorkuntza lan berria, bosgarrena. Honako honek "Pai Sai" izena izango du. Azaroaren 8an plazaratuko du eta dagoeneko bere proiektu berri horri buruzko lehen zertzeladak aurreratzen hasia da Galbete.

Amodioaren aldeko abestiak

Artista usurbildarrak berak aditzera emandakoaren arabera, "abesti propioekin lau diska atera" ostean, erronka berri bati heldu dio; "oraingoan nola egin nire nireak ez diren kantuak, garai, jatorri edo hizkuntz ezberdinetakoak, jota batetik post-hardcore kantu batera. Amodioaren aldeko abestiak, edo berdina izan daitekeena, injustizien kontrakoak".

Bere "Pai Sai" saiakera gisa definitu du. "Saiakera bat da emateko kantuari hartzen diozun bezainbeste, aitorpen bat duen eraldaketa potentzialari. Gonbidapen bat ez soilik paisaia begiratzeko, bertan barneratzeko baizik". Bere sorkuntza lanaren aurrerapena eskaintzen hasia da sare sozialen bidez.



ARGAZKIJABEAXXX

Badator 30. Artisau Azoka

Herriko nahiz Euskal Herriko txoko ezberdinetatik heldutako artisauen topagunea izango da Usurbil, beste behin, azaroaren lehenean. Goiz partean, askotariko ogibideen erakusleihoa eta azoka girotua antolatu du Aitzaga Elkarteak frontoian. 30. edizioa izango da aurtengoa.

Nora Izagirrek bakarkako ibilbideari ekin dio

Nora Izagirrek duela bi aste zabaldu zuen berria, sare sozialen bidez: bakarkako ibilbideari ekin eta disko berri bat plazaratuko duela laster. "Duela 10 urte hasi genuen eMeren ibilbidea, Haritz Harreguy eta Ruben Caballerorekin batera. 2017an 'Beleak elurretan' diskoa kaleratu genuen. Gaur, nire bideak bakarka aurrera jarraitzen du: UMMM".

'Isiltasun ozena' aurrerapen kanta Yutube eta Spotifyn entzun daiteke. Uneak dastatzean sortutako musika gisa definitu du bere apostu berria.

Torrealdai beka deialdia, azken txanpan

Udalak eta Jakin Fundazioak sustaturiko Joan Mari Torrealdai Beka deialdian proiektuak aurkezteko epealdiak urriaren 26an amaitutzat emango dute. “Euskara adierazkorra lantzeko bide berriak”, hortxe gaia. 14.000 euro jasoko ditu proiektu irabazleak (erdia, beka izendapenarekin batera jasoko da; beste erdia, proiektua bukatutakoan). Bekadunak 18 hilabete izango ditu, lanaren emaitza antolatzaileei helarazteko. Informazio gehiago, jakin.eus atarian nahiz jmtbeka@jakin.eus helbidean.

Errigoraren “Euskarari Puzka” kanpaina abian

Aurten bada berrikuntzarik. Produktuon kutxa bat erostearen truke, “Euskararen haziak ereiten” 2027ko egutegi landagarria ere eskatu ahalko da 10 eurotan, Lodosako ikastola laguntzeko.



Eskaerak urriaren 22tik azaroaren 12ra arte egin ahal izango dira.

Beste behin ere, NOAUA! K.E.-k bat egin du Errigoraren ekimenarekin. Eskaerak egiteko aukera eskaintzeaz gain, eskatutakoa jasotzeko gunea izango da kultur elkartearen egoitza.

Errigoraren “Euskarari Puzka” Kanpaina

• Saski beltza: 60 eurotan, ardo beltz gaztea, ilarrak, kardua, mahats zukua, oliba olioa, orburuak, patxaran mantekatuak, pikillo piperrak, potxak, teilak, zainzuriak.

• Saski berdea: 65 eurotan, dilista lehorrak, oliba olioa, orburuak, ozpina, pasta, pikillo piperrak, sagar zukua, tomate frijitua, txitxirioak, txokopipitak, zainzuriak, kuia krema.

• Saski gorria: 75 eurotan, ardo beltza (18 hilabetez barrikan), ardi gazta, ardo txuria, molineritoak, oliba olioa, patxarana, pikillo piperrak, polboroiak, turroia, zainzuriak.


• 2027ko egutegi landagarria: gutxienez kaxa bat erostearen truke, “euskararen haziak ereiten” izeneko egutegi landagarria 10 eurotan eskuratzeko aukera.


• Eskaerak: urriaren 22tik azaroaren 12ra arte, errigora.eus bidez nahiz NOAUA!n.

• Banaketa aurreikuspena: abendu hasiera.

Dokumentala

Errigorak bere dinamika ezagutarazteko “Sustraitik Espaziora” izeneko dokumentala ekoitzi du. Azaroaren 1ean, arratsaldeko 18:00etan Sutegin ikus ahal izango da. "Dokumental honen bitartez, Errigoraren jarduna eta hausnarketak barrutik ezagutuko ditugu".





'Plazan Bazan' 12/13. orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943 498 917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529.

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Titulu soziosanitarioa eta erreferentziak dituen emakume bat naiz eta zaintza lanak, interna moduan zein orduka aritzeko lan baten bila nabil Usurbil edo inguruan. 618814363.

Adineko pertsonak zaintzeko prest, orduka nahiz lanaldi osoz. 618814363.

Gauez pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen neska bat naiz. Titulazioa eta 25 urteko esperientzia dauzkat. 609647728.

Plantxa-zerbitzua edo laguntzaile lanetan orduka aritzeko lan bila dabilen emakume bat naiz. 614349021.

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak. 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747 446 091.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

90 zm-ko ohe artikulatu bat koltxoiarekin eta besaulki edo butaka artikulatu motordunak dauzkagu salgai. 605280119.

Futbol partidak

Haranen

Urriak 24, larunbata

- 10:00 Infantil nesken F-8: Usurbil F.T.-Zarautz K.E.
- 11:30 Emakumezko kadeteen 1. maila: Usurbil FT-Euskalduna
- 17:00 Gizonezko erregionalen 1. maila: Usurbil FT B-Orioko B
- 19:00 Emakumezkoen gorengo maila: Usurbil FT B-Martutene K.E.

Urriak 25, igandea

- 10:00 Mutilen infantil txikiak: Usurbil FT-Billabona K.E.
- 11:30 Gizonezko kadeteen 1. maila: Usurbil FT-Pasaia K.E. D
- 17:00 Gizonezkoen gorengo maila: Usurbil FT-Antigua-Luberri K.E.

Haranetik kanpo

Urriak 24, larunbata

- 12:30 Gizonezko jubenilen gorengo maila, Unben: Urki C.D. B-Usurbil FT
- 15:00 Gizonezko kadeteen 1. maila, Orioko Mendibeltzen:
-Orioko F.T. C
-Usurbil FT B
- 19:30 Emakumezkoen Ohorezko Erregional Maila, Oiartzungo Karla Lekuonan:
-Oiartzun K.E. "B"
-Usurbil FT

Urriak 25, igandea

- 12:30 Mutilen infantil handiak, Donostiako Matigoxotegin:
-Intxaurrondo C.D.
-Usurbil FT

Eskubaloi partidak

Oiardo kiroldegian

Urriak 24, larunbata

- 09:30 Jubenil mutilak: Usurbil K.E. B-Karibe Berri Legazpi
11:15 Jubenil neskak: Cortes Usurbil K.E.-I&D Trans Bidasoa Irun
- 16:00 Senior neskak: Urbil Usurbil K.E.-Deuko Izarra Elgoibar

Urriak 25, igandea

- 08:45-14:15 Benjaminen eta alebinen topaketa.

Oiardotik kanpo

Urriak 24, larunbata

- 10:00 Kadete neskak:
-Amaro Eraikuntzak Elgoibar
-Usurbil K.E.
- 10:00 Kadete mutilak:
-Gran Camping Zarautz ZKE
-Usurbil K.E.
- 11:30 Jubenil mutilak (Euskal Liga):
-Gran Camping Zarautz ZKE
-Usurbil K.E. A
- 12:30 Infantil mutilak, Zarauzko Antoniano kiroldegian:
-MBE Trans Euskadi Group ZKE
-Usurbil K.E.
- 18:00 Senior mutilak, 1.nazionala, Loyolan:
-BM Loyola
-Saizar Usurbil K.E.

HILDAKOAK



Moises Molina Diez
Urriaren 18an hil zen, 88 urterekin.



Izaskun Goikoetxea Labaka
Urriaren 16an hil zen, 53 urterekin.



Maria Pilar Goicoechea Oliden
Urriaren 16an hil zen, 90 urterekin.

Pilota partidak Usurbilen

Urriak 23, ostirala, 18:45

- Kadeteak 2. Mailan:
-Pagazpe (Alejo anaiak)
- Oiarpe 2
- Infantilak 4 1/2ko txapelketan:
Pagazpe (Ostolaza) - Atxiki Pagazpe (Barandiaran) - Hernani
- Alebinak 4 1/2 ko txapelketa:
-Pagazpe (Sanchez)
- Behar zana

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 22

USURBIL "Habitat. Ezkutatu diguten historia", erakusketa eta bisita gidatua

Beñi Agirreren eskutik. Lehenik Udarregiko DBHko ikasleak pasako dira eta ondoren, herritar guztiei zabalduko zaizkie ateak.
16:45 Potxoenean.

OSTIRALA 23

USURBIL Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa

Gazte (+16) eta helduei zuzenduriko saioa izango da.
18:30 Sutegi udal liburutegian.

IGANDEA 25

USURBIL Ordu aldaketa

Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

ASTEARTEA 27

KALEZAR "Kultura matrilineala ezagutzera emateko hitzaldia"

Mari Carmen Basterretxeak euskal gizarte zaharraren egitura matrilineala aztertuko du. Antolatzailea: Aitzinera Elkartea.
18:30 Sutegi udal liburutegian.



Ixabel Agirresarobe Sutegin izango da ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etan.

Liburutegien Egun girotua Sutegin

Urriaren 24ko Liburutegien Egunaren harira, hona hemen, Sutegi udal liburutegiak asteotarako antolaturiko ekitaldien berri:

Urriak 23, ostirala
18:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa 16 urtetik gorakoentzat.

Urriak 28, asteazkena
18:00 "Ameli eta Xirrikituren jostunak" ipuin kontaketa saioa, egileen eskutik.

Azaroak 9, astelehena
18:30 Alaine Agirreren 'Euri eta ateri' liburua aztergai. "Jada eskuragarri ditugu liburutegian aipatu liburuaren hainbat ale".

Ordu aldaketa

Heldu da berriz ere aldaketa egiteko unea. Neguko ordutegia indarrean sartuko da, urriaren 24tik 25erako goizaldean. Goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Erakusketa eta bisita

'Habitat. Ezkutatu diguten historia' erakusketa antolatu du Udarregik Potxoenean. Urriaren 22an, 16:45ean, DBHko ikasleak bertaratuko dira eta ondoren, nahi duten herritar orok.

Bisita gidatuak

Urriak 24, larunbata
• 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldia.

Urriak 28, asteazkena
• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Urriak 30, ostirala
• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil.

Informazio gehiago eta erreserbak:
650usurbilbizi.eus

KAS taldekoen diru bilketa

Kale Afari Solidarioen egitasmoaren bueltan, Usurbilen osatua izan eta iaztik jardunean den taldeak diru bilketa egin asmo duela jakinarazi du. Azaroaren 1eko Artisau Azoka baliatu asmo dute horretarako. Gogoan izan, irailean Potxoenean eginiko asanbladaren harira iragarri zuten asmo hau. "Afarien formatua aldatu denez, janaria ez, olioa eta dirua da behar duguna", jakinarazi dutenez.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

Patri
Patrienea Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

URREZKO PIRULETA

Herriko establezimenduetan erosketa egiten duzun bakoitzean piruleta bat oparituko dizugu.

Urrezkoa tokatzen bazaizu, Hurbilagoren erosketa-karro bat opari.

Zorte on!



Rolser markako erosketa-karroa zuretzat!

- Edukiera handia.
- Ixteko lokarri praktikoa.
- Erraz lotzeko solapa.

EROSLE TXIKIEN IRAULTZA!

BAT HASI, BESTEAK SEGI,
GUZTIOK BULTZA!
BERTAKOA GAL EZ DADIN
EGIN DEZAGUN IRAULTZA!

Partekatu sare sozialetan zure piruleta irekitzen duzun unea **#UrrezkoPiruleta** traola erabiliz.

Usurbilgo Udala gertu@go

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO COMERCIO Y CONSUMO

hurbilago

OFIZIOEN GIDA



IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L
·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA
630 90 02 79 AGINAGA

maiz hornigaiak
·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA
suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

ITZIRA ERAIKUNTZAK
·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak
943 530 337
722 818 206
errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

ARANKA BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
Hipodromo kalea 10, LASARTE
Tel.: 693 05 93 92 uraitz@uraitz.com

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

Antonio Urruzola
AROZTEGIA
687 845 599 - 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL
J. R. IBARGOIEN S.L
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@hotmail.com
943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

hartele
Antenak - Atezainak - Bideo-zaintza
943 287 742 / 629 121 355

APARICIO
PINTURA LANAK
Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA•GASA•AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA•ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain iturgintza
TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com